

LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN JARDUERAK

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta Donostia Kulturak hainbat jarduera antolatu ditu hilaren 20tik 26ra liburutegietan eta kultur etxeetan.

Jarduera hauen ardatz nagusia irakurleak izango dira. hain zuzen, Donostia Kulturaren liburutegietara, 23tik aurrera, hurbiltzen diren irakurleei **Miren Asiain** ilustratzaileak eginiko orri-markagailua emango zaie. Modu honetan, 1996tik datorren ohiturari jarraipena emango zaio, euskal ilustratzaile batek, Liburuaren Egunerako, diseinatutako orri-markagailu bat argitaratzearena, alegia. Miren Asiain baino lehen Mikel Casal, Yolanda Mosquera eta beste irudigile askoren ekarpenak izan dira. Bilduma osoa webgunetik ahal da deskargatu, eta bildumazaleen eskaerei ere kasu egiten zaie.

Bestalde, irakurzaletasuna bultzatzeko eta erabiltzaileen fideltasuna saritzeko, udal liburutegiko 20 irakurle onenak sarituko dira, 10 haur eta 10 heldu. Bakoitzari diploma bat eta liburuak erosteko 30 €ko bonu bana emango zaie. Liburutegitik sarituekin harremanetan jarriko dira.

Aste osoan zehar haurrentzako ipuin kontaketak eta saio bereziak egingo dira, batzuk online formatuan eta beste batzuk presentzialak. Aipagarriak dira 23 eguneko goizeko lehen orduan Donostia Kulturako Youtube kanalean zintzilikatuko diren bi saio. Alde batetik, Liburu Challenge 2.0. Goazeneko Markel Sainz, Xanti Korkostegi eta Lorea Intxausti aktoreek liburuen inguruko erronkei aurre egingo diete, umorez betetako saioan. Bestetik, Mestiza Elkartearen Liburu Baby Kluba online saio berezia, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Gonbita luzatu zaie ikastetxeei grabazio hauek geletan jartzeko egun horretan, ikasleekin batera eguna ospatzeko. Challenge 2.0 grabazioa goizeko 8:00etatik aurrera egongo da ikusgai Donostia Kulturako Youtube kanalean, eta proposa da Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Liburu Baby Klubaren bideoak, Haur Hezkuntzakoentzat dira aproposak, eta goizeko 9:00etatik aurrera egongo dira ikusgai toki berean.

Haurrentzako saio presentzialen artean, 23an bertan Ana Galarraga, *Marikalanbre*, *bizitzaren laborategian*, liburuaren egileak esperimentuak eta zientzian oinarritutako bitxikeriak kontatuko ditu modu dibertigarrian. Esperimentu guztiak etxean egin daitezke inolako arriskurik gabe. Jarduera Liburutegi Nagusiko San Jeronimo aretoan izango da 6-8 urte bitarteko haurrentzat. Jarduerak oso harrera ona izan du eta eskaini diren tokiak jadanik bete dira.

Okendo, Aiete, Intxaurrondo, eta Tomasene Kultur etxeetako liburutegietan adin guztietako haurrentzako tailerrak eta ikuskizunak egongo dira hilaren 20tik 26ra.

Okendo Kultur Etxea

20

Liburu magikoen etxea

Adina : +6

18:00 EU

Aldez aurretik izena eman behar da: okendoliburutegia@donostia.eus

Aiete Kultur Etxea

23

Modesto kapitaina, itsasoko abentura

18:00 EU

Adina : +6

Aldez aurretik izen eman behar da: aietekulturetxea@donostia.eus

24

Animaliak, El Retablo

Keinu antzerkia teatro gestual

17:00

Adina: +6

Aldez aurretik izena eman behar da: aietekulturetxea@donostia.eus

Intxaurrondo Kultur Etxea

23

Belardo ispiluan, losu Mitxelena

Ilustrazio tailerra Taller de ilustración

Adina: 7-12

17:30 – 19:30 EU

Aldez aurretik izena eman behar da: intxaurrondoliburutegia@donostia.eus

Tomasene Kultur Etxea

24

Zur eta lur, Imanol Ituiño Magoa

17:30 EU

Adina: +6

Aldez aurretik izena eman behar da: casareskulturetxea@donostia.eus

Helduen atalari dagokionez, egunari hasiera emateko goizeko 8:00etan DK Irratiaren Ispilu Beltza irratsaioan (107,4 FM) Liburuaren Nazioarteko Egunaz hitz egingo da. Aldi berean irratiarako bi podcast berezi sortuko dira, lehenengoa Martin Ugalde idazleari eskainia, aurten jaiotzaren mendeurrena ospatzen da eta berak idatzitako bi ipuinen irakurketa egingo dute Garbiñe Ubeda, Anjel Lertxundi, Arantxa Urretabizkaia, Inazio Mujika, Garazi Kamio eta Koldo Izagirre idazleek.

Bigarren podcasta literatur ibilbide birtual bat izango da, aurreko urteetan egin izan denaren ordezkia, pandemiaren ondorioz aurten ezingo baita ohiko literatur ibilbidea egin. Amaia García eta Slawka Grabowskak *Paseando con Quirke por San Sebastián* podcasta prestatu dute John Banville idazle irlandarrak aurten argitaratu duen eleberri beltzean oinarrituta.

Eleberri beltzarekin jarraituaz, Lide Aguirre idazle donostiarrak Amaia Garcíaarekin batera, *Los trucos de la bestia*, bere lehenengo argitalpenaren aurkezpen solasaldia egingo du hilaren 22an, arratsaldeko 19:30ean Liburutegi Nagusiko San Jeronimo aretoan. Izena eman behar da: donostiakoliburutegiak@donostia.eus

Azkenik, Okendo eta Tomasene kultur etxeetako liburutegietan ere helduentzako jarduerak egingo dira.

Okendo Kultur Etxea

23

Música & Lectura

Iñaki Miguel, pianoa & Plus 55, testu irakurketa

12:00 CAS

Aldez aurretik izena eman behar da: okendoliburutegia@donostia.eus

Tomasene Kultur Etxea

26

Sugarren mende, Asisko Urmeneta

18:00 EU

Aldez aurretik izen eman behar da: casareskulturetxea@donostia.eus

Liburuaren Egunean, Donostiako liburu-dendek, %10eko ohiko deskontua egingo dute liburuak erostean. Batzuek kalera aterako dituzte stand txikiak: Zubieta, Tobacco Days, Casa del Libro, eta abar.

Bigarren urtez jarraian, eta egoera pandemikoa dela eta, Gipuzkoa Plazan ez da azokarik izango, baina apirilean Gipuzkoa eta Donostia lurralde irakurle izendatu dira.